

KOSTUEN EGITURA

Aplikazio hau aurrera eramateko hainbat gastu izan behar dira kontuan, batzuk **finkoak** dira, hala nola *internet*a, *zerbitzarien kostua*, *bulegoaren mantentze kostua* eta *langileak*, eta beste alde batetik, kostu **aldakorrak** ditugu; materiala, energia eta promozioak.

Kostu finkoen barruan **zerbitzarien kostua** dago, aplikazioa behar bezala funtzionatu eta eguneratuta mantentzeko. Horrez gain, **internet** eta **wifiaren** gastua kontuan hartu behar da: “0,01 kW-eko kontsumoa eguneko 24 orduz eta hilean 30 egunez erabilita 7,2 kWh kontsumitzen dira, eta horrek 1,4 euroko kostua du hilean.” Laburbilduz, hileko **20 euroko kuota** eta **60 euroko instalazio kostua** gehitu behar zaizkio. Era berean, **bulegoaren mantentze-kostuak** daude, hala nola espazioaren erabilera eta oinarrizko gastuak. **Langileak** kontratatuz gero, soldatak eta langileen Gizarte Segurantza ordaindu beharko lirateke, eta horiez gain asesore baten zerbitzuak, autonomoen kuota eta ogasunari lotutako gastuak ere kontuan hartu behar dira. Baita lanerako materialaren kostua, nahiz eta **hasieran langile bakoitzak bere materiala** erabiliko luke, negozioa **handitzen** bada, **enpresak langile bakoitzari bere ordenagailua** eman beharko lioke.

Bestalde, kostu aldagarrien artean **energia-kostua** dago: LED argiek 1,8 euroko kostua dute hilean, ordenagailuek 3 euro ingurukoa, estufa elektrikoak 40 eurokoa eta hozkailuak 3,6 eurokoa. Guztira, energia-kontsumoak 48 euroko kostua suposatzen du hilean, gehi wifiaren 1,4 euroak. Azkenik, **promozio-kostuak** ere badaude, publizitatearekin eta marketinarekin lotutako gastuak dira, negozio jarduera aurrera joan ahala, estrategia motaren arabera zehatuko ditugunak.

